


Familiantzako Eskolen ESKAINZA 2026



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Adikzioen Prebentzioa



Zer dira: Helduen talde txikiak dira eta profesionalen eskutik, era dinamiko, partizipatibo eta praktiko baten hurrengo gaiak landuko dituzte: adikzioak, sexualitatea, atxikimendua, emozioak, errespetua, gatazken konponketa,...

Nori zuzenduta: Ikasleen familiei eta interesatuta dauden heldu guztiei ere.

**Gutxienez 10 pertsona egon behar dira ikastaroa aurrera eramateko
(gehienez 20 pertsona).**

Taldea osatzeko orduan izen ematearen ordena kontuan izango da.

IZENA EMATEKO:

Abenduaren 30erarte

Telefonoz: 94-620.05.20 (goizez 9,30etatik 13,30etara)

Emailez: adikzioak@dma.eus

Gure bulegoan: Durangoko Landako Elkartegian

Landako etorbidea 4 - 202 bulegoa

DOHAINIK

Aurten emango diren ikastaroak hauek izango dira:

Astelehena

Errespetuan oinarritutako elkarbizitza, haurtzaro seguru eta zoriontsua.

Landakoko Elkartegian
(Durango)

90 minututako 4 saio
(otsailak 2, 9, 16 eta 23)

14,45 - 16,15

Teresa Alonso

Asteartea

Autoestimua, emozioen kudeaketa,... haurtzarotik sustatzen.

Landakoko Elkartegian
(Durango)

90 minututako 3 saio
(otsailak 10, 17 eta 24)

14,45 - 16,15

Arrate Arana

Asteazkena

Errespetuan oinarritutako elkarbizitza, haurtzaro seguru eta zoriontsua.

ELORRION

(lekua zehaztu barik)

90 minututako 4 saio
(otsailak 4, 11, 18 eta 25)

14,45 - 16,15

Teresa Alonso

Osteguna

Mundu bat deskubritzeko,
0-6 urte.

Landakoko Elkartegian
(Durango)

90 minututako 3 saio
(otsailak 5, 12 eta 19)

14,45 - 16,15

Amaia Sarrionandia

Errespetuan oinarritutako elkarbizitza, haurtzaro seguru eta zoriontsua.

Landakoko Elkartegian
(Durango)

90 minututako 4 saio
(otsailak 5, 12, 19 eta 26)

18,00 - 19,30

Teresa Alonso

Gure sexu-iturria:

PORNOGRAFIA?

Landakoko Elkartegian
(Durango)

90 minututako 4 saio
(otsailak 5, 12, 19 eta 26)

18,00 - 19,30

Amaia Sarrionandia

Ostirala

Errespetuan oinarritutako elkarbizitza, haurtzaro seguru eta zoriontsua.

ZELAIETA Eskolan
(Abadiño)

90 minututako 4 saio
(otsailak 6, 13, 20 eta 27)

15,00 - 16,30

Teresa Alonso

Nerabezaroan apustuak, kontsumoak,... EZ daitezela arazo bihurtu.

Landakoko Elkartegian
(Durango)

90 minututako 4 saio
(otsailak 2, 9, 16 eta 23)

18,00 - 19,30

Arrate Arana

"Errespetuan oinarritutako elkarbizitza, haurtzaro seguru eta zoriontsua" ikastaroa izan ezik (gaztelaniaz izango dena), gainerakoak gaztelaniaz edo euskaraz egingo dira, ikastaroan izena eman duten pertsonen arabera.

MUNDO BAT DESKUBRITZEKO, 0 - 6 URTE

90 minututako 3 saio

Otik 6 urte bitartekoa adin tartea oso garrantzitsua da heziketan. Garai honetan ezartzen dira umeen garapenaren oinarriak; bai fisiko arloan, eta baita arlo kognitibo, psikologiko eta emozionalean ere. Horregatik, familia eskola honetan, ondorengo gaiak jorratuko dira: Umeei eta geure buruari buruzko itxaropenak - Umeen temperamentua - Lotura afektiboak nola indartu - Emozioen garrantzia - Jolasaren eta barrearen garrantzia - Beldurrak - Ohiturak sustatzen (loa, elikadura, jostailuak batzea,...).

AUTOESTIMUA, EMOZIOEN KUDEAKETA,... HAURTZAROTIK SUSTATZEN (6 -12 urte)

90 minututako 3 saio

Haurrak Lehen Hezkuntzan dituzten familiei zuzenduta. Bertan ondorengo gaiak landuko dira: Haurtzaroa, funtsezko garaia. Sentimenduak eta emozioak ezagutzea eta adieraztea. Talde presioari aurre eginez. Ezetz esaten ikastea. Familiaren garrantzia prebentzioan. Autoestimua bultzatuz. Nerabezaroan gertatuko diren aldaketak.

GURE SEXU-ITURRIA: PORNOGRAFIA?

90 minututako 4 saio

Hainbat lekutan entzun eta irakurri dugu gaur egungo gaztetxo eta nerabeek pornografia asko ikusten dutela eta horren ondorioz harreman sexual desegokiak dituztela. Familia eskola honetan gure sexualitatearen oinarria benetan pornografía den ikusiko dugu. Sexualitatea zer den, Sexualitatea bizitzaren garai desberdinetan, zein adinetan hasi behar garen sexualitatean hezten, Nola hezi haurtzaroan eta nerabezaroan,....

NERABEZAROAN APUSTUAK, KONTSUMOAK,... EZ DAITEZELA ARAZO BIHURTU

90 minututako 4 saio

Bigarren Hezkuntzako adingabekoen familiei zuzenduta. Bertan ondorengo gaiak landuko dira: Drogei buruzko informazioa - Mitoak -Kontsumo seinaleak eta zer egin. Zer dio LEGEAK - Apustuak - Portaera arriskutsuen arrazoiak - Autoestimua - Talde presioa - Komunikazioa - Emozioak.

ERRESPETUAN OINARRITUTAKO ELKARBIZITZA, HAURTZARO SEGURU ETA ZORIONTSUA.

90 minututako 4 saio

Elkarbizitza eta errespetua komunitateko kide guztien arteko harreman positiboetan oinarritzen dira. Desberdintasunak onartzearen, elkarrizketaren eta gatazkak modu baketsuan konpontzearen bidez eraikitzen dira, lankidetzak, empatia eta inklusioa bezalako balioak sustatuz. Arau horiek erabiltzeak ikaskuntza-giro segurua eta positiboa sortzen du, funtsezkoa haurren garapen integralerako. Bizikidetzak adostasunetan, elkarrekiko aitortzean, errespetuan, elkarrizketan eta desberdintasunaren balorazioan oinarritutako harremanak bilatzen ditu, gatazkarik ez egotea bilatu gabe, baizik eta modu baketsuan konpontzea.

Haurtzaro segurua, haurtzaro zoriontsua da.

Zer esan nahi du bizikidetzak eta errespetuak?: Kalitatezko harremanak - Gatazkak modu baketsuan konpontzea - Aniztasuna baloratzea - Balio etikoak sustatzea - Ikasteko ingurunea.

FAMILIENTZAKO HITZALDIEN ESKAINTZA: SEXUALITATEA FAMILIAN

“Gure sexu-iturria: PORNOGRAFIA?”

Berrizko Learreta-Markina Eskolan
Urtarrilak 13 - 18,00etatik 19,30etara

“Haurtzaroan ERE sexualitatean hezten dugu?”

Zaldibarko Eskolan
Urtarrilak 21 - 18,00etatik 19,30etara

Berrizko Learreta-Markina Eskolan
Otsailak 10 - 18,00etatik 19,30etara

“Nerabezaroan eta bizitzan zehar sexualitate osasungarriaz gozatzeko”

Zaldibarko Eskolan
Martxoak 25 - 18,00etatik 19,30etara

Berrizko Learreta-Markina Eskolan
Martxoak 10 - 18,00etatik 19,30etara

Gutxienez 10 pertsona behar dira hitzaldia aurrera eramateko.

Hitzaldi bakoitza baino astebete lehenagorarte egin ahal izango da IZEN-EMATEA.